

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

EKONOMIAREN GARAPEN,
JASANGARRITASUN
ETA INGURUMEN SAILA

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD
Y MEDIO AMBIENTE

EUSKADIKO GASTRONOMIA ETA ELIKADURAREN PLAN ESTRATEGIKOA 2024

PLAN ESTRATÉGICO DE LA GASTRONOMÍA Y ALIMENTACIÓN DE EUSKADI 2024

20
24

GEPE BERRIA



basque culinary center



AURKIBIDEA

AURKIBIDEA	2
AURREKARIAK ETA TESTUINGURUA	3
EUSKADIKO GASTRONOMIA ETA ELIKADURAREN PLAN ESTRATEGIKOA 2024	6
1. PLANAREN XEDEA ETA IRISMENA.....	6
2. IKUSPEGIA.....	6
3. PLANAREN PRINTZIPIOAK.....	6
4. HELBURU ESTRATEGIKOAK.....	6
5. ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA LEHENTASUNEZKO JARDUKETA-ILDOAK.....	7
5.1. NEKAZARITZA-, ARRANTZA- ETA BASOGINTZA-SEKTOREAREN ROLA INDARTZEA. Belaunaldi- erreleboa sustatzea lehen sektorean.....	9
5.2. ENPRESEI LAGUNTZEA NEGOZIOAK SORTZEN.....	12
5.3. TOKIKO ETA ESTATUKO MERKATUAK NAZIOARTEKOTU ETA GARATZEA.....	14
5.4. TEKNOLOGIA ETA EZAGUTZA BALIO ERANTSIKO NEGOZIOEN ZERBITZURA.....	18
5.5. KULTURA ETA GIZA KAPITALA.....	21
5.6. PROIEKTU ESTRATEGIKO ETA ERALDATZAILEAK.....	23
5.7. LEHIAKORTASUNERAKO TESTUINGURUA.....	25
5.8. BIOEKONOMIA ETA ZURAREN BALIO-KATEA.....	27
6. GEPE BERRIAREN EKARPENAK GARAPEN JASANGARRIRAKO HELBURUEI (GJH).....	29
7. GOBERNANTZA-EREDUA.....	30
7.1. PLANAREN LIDERGOA.....	30
7.2. JARRAIPEN- ETA EBALUAZIO-SISTEMA.....	31
8. EKONOMIA- ETA AURREKONTU-ESPARRUA.....	36
I. ERANSKINA: GEPE I PLANAREN HELBURU ESTRATEGIKOAREN JARRAIPENA	37
II. ERANSKINA: GEPE I PLANAREN JARRAIPENA ARDATZ ESTRATEGIKOEN ETA LEHENTASUNEZKO JARDUKETA-ILDOEN ARABERA	39
III. ERANSKINA: EUSKADIKO GASTRONOMIA ETA ELIKADURAREN PLAN ESTRATEGIKOAREN EKONOMIA- ETA AURREKONTU-ESPARRUA (GEPE I)	51
IV. ERANSKINA: ERRONKA ESTRATEGIKOAK. BEHARRAK ETA JOERAK	54



AURREKARIAK ETA TESTUINGURUA.

AURREKARIAK.

2017an onetsi zen Gastronomia eta Elikaduraren Plan Estrategikoa (GEPE); aurreko legegintzaldiko Gobernu Programaren Plan Estrategiko gisa artikulatu zen, eta Euskadiko elikadurako balio-katea garatzeko apustu estrategikoetako bat zen.

Plan **integrala eta berritzailea** zen orientazioari zegokienez; izan ere, balio-katearen kate-maila guztiak biltzen zituen, lehen sektoreko ekoizpenetik elikagaien kontsumora arte. Horrez gain, **pertsonak** (elikagaien kontsumitzaileak) balio-katearen erdigunean ipini zituen, eta **beste ekonomia-, kultura- eta gizarte-sektore batzuekiko harremanak** aintzat hartzen zituen.

Gainera, Planaren helburua zen **Euskadiko elikadura eta gastronomiaren 4 ardatzak** jorratu eta garatea: **segurua, osasuntsua, singularra eta jasangarria (gizartearen, kulturaren, ekonomiaren eta ingurumenaren ikuspuntutik)**, eta horretarako Euskadiko gastronomia eta elikadura sustatu eta garatzeko beharra planteatzen zuen, elikadura-industriaren eta gastronomiaren garapenaren bidez, bereziki tokiko produktu osasuntsu eta kalitatekoa sustatzen duena, baita jasangarritasuna, balio-proposamen turistiko bikainaren sorrera, kultura-, paisaia- eta gastronomia-ondarearen kontserbazioa eta, noski, munduan aintzatespen-maila handiagoa lortzea ere.

2017-2020 Gastronomia eta Elikaduraren Plan Estrategikoaren egikaritze-egoera eta finantza-plana I. Eranskinean (I. GEPEaren Helburu Estrategikoaren Jarraipena), II. Eranskinean (I. GEPEaren jarraipena ardatz estrategikoen eta lehentasunezko jarduketa-ildoen bidez) eta III. Eranskinean (I. GEPEaren ekonomia- eta aurrekontu-esparrua) jasotzen dira. Hau azpimarratu behar da analisian:

- Planaren amaieran, Euskadiko ekonomian elikadura eta gastronomiaren balio-kateak zuen pisua % 9,37koa zen, eta aurreikusitako helburua zen % 12ra iristea. COVID-19ak eragindako pandemiak eragin nabarmena izan du elikadura eta gastronomiaren balio-katearen kate-maila eta sektore jakinetan, eta eragin negatiboak izan ditu bereziki edarien, turismoaren eta gastronomiaren sektoreetan.
- Planean aurreikusitako ardatz estrategiko eta lehentasunezko jarduketa-ildo guztietan jarduketa garrantzitsuak egin dira. Gainera, COVID-19aren aurkako neurrien sorta bat artikulatu da (soberakinen bilketa eta stocken kudeaketa, gizarte-laguntzak, finantza-tresnak eta konpromisoen ordainketa atzeratzea, hainbat sustapen- eta merkaturatze-jarduketa, segurtasunaren arloan, etab.).
- Elikaduraren eta zuraren balio-katera bideratutako gastu publikoa, 2017 eta 2020 artean, 239,4 milioi eurokoa izan da guztira, eta epe berdineko inbertsio publikoa, berriz, gastu publiko totalarekin lotutakoa, 403,7 milioi eurotik gorakoa izan daiteke. Beraz, 2017 eta 2020 artean, inbertsioa **638,1 milioi eurokoa** izan da guztira. Gainera, urte horietan zuzeneko laguntzak 185 milioi eurokoak izan daitezkeela zenbatesten da.

Halaber, **sektorearen ikusgarritasun garrantzitsua eta sektore estrategiko gisa duen proiektzioa** azpimarratu behar dira. Osasun-krisiaren agerpenaren eta funtsezkoak ez ziren jarduera guztien itxieraren ondoren, biztanleriaren hasierako beldurrak, hornidurarik gabe gelditzeak, desagertu egin ziren berehala, eta elikagaien ekoizpena eta hornikuntza bermatu ziren. Halaber, oro har elikaduraren sektoreak jakin du agertoki lehiakor berria egokitzen, eta indartuta atera da; 2019ko martxoaren aurreko ekoizpen-mailak berreskuratu dira, esportazioak areagotu dira, taldeko ondasunen eskatzailea da, sektore ugariaren eragilea da eta sekulako garrantzia du ekonomian.



TESTUINGURUA: PLANAREN OINARRIAK.

Dokumentu honek 2024ko Gastronomia eta Elikaduraren Plan Estrategikoaren (GEPE Berria) funtsezko printzipio, helburu eta bitarteko nagusiak jasotzen ditu. Dokumentua Eusko Jaurlaritzak egin du, eta **aurreko GEPEarekin jarraitu eta hura indartu** nahi du. Azken hori 2017an abiarazi zen, Jaurlaritzaren apustu estrategiko gisa.

Elikadura eta gastronomiaren balio-kateak **rol estrategikoa du Euskadiko ekonomian**, eta efektu eragilea du, BPGd-ean eta sortutako enpleguan duen pisuagatik. Horrez gain, geroz eta ekarpen handiagoak egiten ditu merkataritza-balantzan eta berrikuntzako inbertsioan; jarduera ekonomiko globalean ere eragin biderkatzailea du, eta lurraldea egituratzen du.

Osasun-krisia, beharren aldaketa eta aldaketen azelerazioa.

COVID-19aren pandemia **inflexio-puntu bat** izan da herritarren osasun-**beharrei** eta osasun-politikaren **lehentasunei** dagokienez, eta, gainera, Euskadiko ekonomia eta enpleguan islatu da. Beharrezkoa da krisiaren aurreko mailak berreskuratzea, baina erronka eta behar berrietara egokituta eta aintzat hartuta **Next Generation UE programa**.

Aurrera egiten garapen-eredu jasangarri eta bidezko baterantz.

Krisitik ateratzeko eta etorkizun jasangarriagoa lortzeko mekanismo nagusien artean, Europar Batasunak Europako Itun Berdea edo European Green Deal proposatu du. Testuinguru horretan, Eusko Jaurlaritzak itunaren espiritua ekarri du Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren eskutik, **Basque Green Deal** ekimenaren bidez, zeinak, besteak beste “Baserritik mahaira” ardatza jorratzen duen elikakatearen ardatz egituratzaile gisa.

Elikadura eta gastronomia, aukera-esparrua eta lurralde-estrategia.

Aurreko legegintzaldian, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak elikakate osoa aukera-esparru gisa planteatu zuen, baita Euskadiren nortasunaren zeinu gisa ere.

2030eko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Planean jasotako Euskadiko RIS3 Espezializazio Adimentsuaren Estrategian **elikadura osasuntsua aukera-esparru gisa** finkatzen da, zahartze osasuntsurako kalitateko elikagaien garapenera bideratuta ikerketaren eta berrikuntzaren bidez. Horrez gain, nekazaritzako elikaduraren industriak Euskadiko ekonomian duen pisua indartzen da. Horretarako, Euskadiko elikaduraren industriak balio-sorreran espezializatu behar du, geroz eta efizienteagoak izango diren prozesuen bidez. Balio-sorrerak honako oinarri hauek izan behar ditu:

- Ekoizpen-ekosistema seguru, jasangarri eta osasuntsuagoak.
- Zerbitzu eta produktuen sorta berri baten garapena, elikadura-osasuna binomioarekin lotutako geroz eta kontzientzia handiagoa duten herritarrentzat.
- Teknologia digital eta bioteknologiko berriak gehitzea.

Eredu-aldaketa: ekonomia linealetik ekonomia zirkularrera.

Egungo legegintzaldiaren beste erronketako bat da Euskadi erreferente bihurtzea Europa hegoaldean **ekonomia zirkularrean** eta bioekonomia zirkularrean, non ingurumena funtsezko faktore bihurtzen den jasangarritasunean, lehiakortasunean eta enplegu-sorreran. Horrez gain, ekonomiaren hazkundera baliabide naturalen kontsumotik, hondakinen sorreratik eta berotegi-efektuko gasen igorpenetik bereizten da.



Nazioarteko esparruak.

Bestalde, GEPE Berria idazteko kontuan hartu behar dira, besteak beste, **Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH)**, Europar Batasunaren **Food 2030 estrategia**, Europako Itun Berdean jasotako estrategia komunitarioak (“**Baserritik mahaira**” eta “**Biodibertsitatea 2030 horizontean**”),

Nekazaritza Politika Bateratuaren (NPB) eta **Arrantza Politika Bateratuaren (APB)** erreforma berria eta **Urte Anitzeko Finantza Esparrua 2021-2027**.



EUSKADIKO GASTRONOMIA ETA ELIKADURAREN PLAN ESTRATEGIKOA 2024.

1. PLANAREN XEDEA ETA IRISMENA.

Gastronomia eta elikadura sustatu eta garatzea Euskadiko ekonomiaren sektore estrategiko gisa, enplegua eta jarduera ekonomikoa sortzeko gaitasunagatik. Horrekin batera, kultura-ondare gastronomikoa eta natura- eta paisaia-baliabideak kontserbatu nahi dira. Gastronomia eta elikaduraren industria bultzatzeko politika eta tresnak sustatzea, eta, bereziki, kalitateko produktu osasuntsuak ekoizten dituen, jasangarritasuna sustatzen duena, kalitateko balio-proposamen turistikoa sortzen duena eta Basque Country marka nazioartean hedatzen duena.

Gastronomia eta elikaduraren balio-katea: osasuntsua, segurua, singularra eta jasangarria (soziala, kulturala, ekonomikoa eta ingurumenarena).

2. IKUSPEGIA.

Euskadi mundu-mailako erreferentzia bihurtzea gastronomia eta elikaduran, balio-kateko ezaugarri hauengatik: ekonomia-, gizarte-, kultura- eta ingurumen-kalitatea eta -jasangarritasuna.

3. PLANAREN PRINTZPIOAK.

2024ko Gastronomia eta Elikaduraren Planak (GEPE Berria) bat egiten du, nola ez, 2020-2024 Gobernu Programaren printzipioekin:

- Osasuna bermatzea.
- Ekonomia eta enplegua berraktibatzea.
- Inor atzean ez uztea.

Gainera, printzipio hauek aurkezten ditu:

- Fokua pertsonengan eta enpresetan.
- Elikadura-ekosistema hau sustatzea: integratua, dinamikoa, lehiakorra eta nazioarteko bokaziokoa.
- Elikadura-sistema seguru, jasangarri eta osasuntsuago baten alde egitea.
- Lurraldearen garapen jasangarriaren aldeko apustua egitea, landa- eta itsasertz-espazioa zainduz eta jarduera ekonomikoa sustatuz.
- Eragile anitzeko lankidetzeta.
- Euskadin bioekonomia zirkularra sustatzea.

4. HELBURU ESTRATEGIKOAK.

GEPE Berriak bere egiten ditu 2020-2024 Gobernu Programan ezarritako lurralde-helburuak, eta, zehazki, honako hauek:

- Langabezia murriztea % 10aren azpitik.
- BPGd-ren % 40 gairiditza industrian eta zerbitzu aurreratueta.
- I+G-n Europako batezbestekoarekin bat egitea.
- Euskadi genero-berdintasunaren indize handiena duten 6 herrialdeen artean sartzea.
- Berotegi-efektuko gasen igorpenak % 30ean murriztea.



- Energia berriztagarrien kuotak amaierako energia-kontsumoaren % 20 ordezkatzea.

Horiekin batera, 2024ko Gastronomia eta Elikaduraren Planarekin zuzenean lotutako erantzukizuna duten helburu kuantitatibo hauek finkatzen dira:

- % 25ean handitzea elikadura eta gastronomiaren balio-katearen BEG 2020-2024 aldian.
- % 15ean handitzea lehen sektorearen eta elikadura eta edarien industriaren BEG 2020-2024 aldian.

Halaber, helburu hauek ezartzen dira:

- Gastronomia eta elikadurako ekosistema ireki eta kolaboratzailea sortzea, lankidetzeta publiko-privatukoa, elikadurako balio-katearen lurralde- eta inguru,men-erlaldaketarako eta eraldaketa digitalerako.
- Enplegu jasangarria sortzea elikaduraren balio-katean, arreta berezia ipinita lehen sektorean, eta, bereziki gazteen eta emakumeen kolektiboetan.
- Balio-kateko eragile guztien lehiakortasuna hobetzea eta lehen sektoreak balio-katean duen rola indartzea.
- Euskadiko elikaduraren balio-katea sustatzea, ikerketaren, garapenaren eta berrikuntzako lan kolaboratzailearen bidez.
- Euskadiko gizartearen gizarte-ongizatea eta bizi-kalitatea hobetzea elikadura osasuntsu, singular eta seguruaren bidez.
- Euskadiren nazioarteko kokapena eta ospea finkatzea, erreferentziako lurralde bihurtzeko elikaduran eta gastronomian, baita lurralde erakarria ere kalitateko turismoarentzat.
- Euskadiko gastronomiaren sektorerako jauzi kualitatiboa ahalbidetzea, berrikuntza eta kalitatearen ezaugarriengatik, eta nazioartean proiektatzea Basque Country markarekin.
- Euskadi bioekonomia zirkularraren erreferentzia gisa kokatzea Europa hegoaldean.
- Nekazaritzako elikaduraren, itsasoaren eta basogintzaren sektorea indartzea, bioekonomia zirkularraren aukerak aprobetxatzeko.

5. ARDATZ ESTRATEGIKOAK ETA LEHENTASUNEZKO JARDUKETA-ILDOAK.

GEPE Berria 8 ardatz estrategikotan egituratzen da, eta horietako 6 dagoeneko bazeuden Euskadiko Gastronomia eta Elikaduraren lehen Plan Estrategikoan. Beraz, bi ardatz berri gehitu dira:

- Nekazaritza-, arrantza- eta basogintza-sektorearen rola indartzea. Belaunaldi-erreleboa sustatzea lehen sektorean.
- Bioekonomia eta zuraren balio-katea.

Ardatzek, oro har, zeharkako izaera dute kate-mailetan (ekoizpena, eraldaketa, banaketa eta gastronomia), eta 34 jarduketa-ildotan banatzen dira.

Hauek dira GEPE Berrian jasotako ardatz eta jarduketa-ildoak:



<p>NEKAZARITZA-, ARRANTZA- ETA BASOGINTZA-SEKTOREAREN ROLA INDARTZEA. BELAUNLDI-ERRELEBOA SUSTATZEAN LEHEN SEKTOREAN.</p>	<ol style="list-style-type: none">1. Lehen sektorearen gaztetzea sustatzea, beste administrazio eta eragile batzuekin lankidetzan.2. Sektore barruko eta sektore arteko berregituraketan aurrera egitea.3. Lehen sektorea indartzea elikadura eta zuraren balio-katean.4. Nekazaritza- eta basogintza-sektorearen ingurumen-jasangarritasunaren alde egitea.5. Gizartea sentsibilizatzea lehen sektorearen rol estrategikoari buruz, gizartean, ekonomian, ingurumenean, kultura-ondarea, lurraldearen orekan, eta abarreak egiten duen ekarpenari esker.6. Emakumearen irudia indartzea sektorean. Emakume Nekazarien Estatutuaren esparruan aurrera egitea.
<p>ENPRESEI LAGUNTZEAN NEGOZIOAK SORTZEN.</p>	<ol style="list-style-type: none">1. Behar eta etapa bakoitzera egokitutako programa, zerbitzu eta laguntza-ildoak eskaintzea.2. Enpresei laguntzeko finantzaketa-tresnak sustatzea.3. Euskadi kokatzea ekintzailtzarako eta barne-ekintzailtza sustatzeko lurralde erakargarri gisa.
<p>TOKIKO ETA ESTATUKO MERKATUAK NAZIOARTEKOTU ETA GARATZEAN.</p>	<ol style="list-style-type: none">1. Elikadura-gastronomia-turismoa triangeluaren nazioartekotzea sustatzea.2. Enpresen nazioartekotzea sustatzea.3. Tokiko eta kalitateko produktu jasangarriak sustatzea.4. Euskadiko gastronomia- eta elikadura-sistema sustatzea, Basque Country markan oinarrituta.5. Kanal-aniztasuna.
<p>TEKNOLOGIA ETA EZAGUTZA BALIO ERANTSIKO NEGOZIOEN ZERBITZURA.</p>	<ol style="list-style-type: none">1. Enpresa ireki eta konektatuak, soluzio hobek eskaintzeko eta kontsumitzaileen beharrei aurrea hartzeko.2. Ekoizpen-sistema berri eta jasangarri, automatizatu, efiziente eta seguruagoak, lehiakortasuna irabazteko.3. Elikagai osasuntsuak eta komenentziakoak, pertsonei balio erantsi handiagoa emateko.
<p>KULTURA ETA GIZA KAPITALA.</p>	<ol style="list-style-type: none">1. Pertsonak sentsibilizatu eta prestatzea sektorea ezagutzeko behar berrietan eta elikadura osasuntsuaren garrantzian.2. Talentua garatu, erakarri eta mantentzearen aldeko apustua egitea, etorkizuneko lehiakortasun-faktore gisa.3. Berrikuntza teknologikoaren eta ez teknologikoaren kultura sustatzea.4. Enpresen zuzendaritza-prestakuntza indartzea, bereziki enpresa txikienetan.5. Kultura gastronomikoa sustatzea.



<p>PROIEKTU ESTRATEGIKO ETA ERALDATZAILEAK.</p>	<ol style="list-style-type: none"> 1. “The Global Food Ecosystem” ekimen publiko-pribatua sustatzea, lidergo publikotik sektorea eraldatzeko proiektu pribatuak sustatu eta ahalbidetzeko eta egungo eragileen berrikuntza, ekintzailtza, digitalizazio eta lanbide-heziketako gaitasunak eraikitzeko. 2. Gaitasun eraldatzailea duten proiektuen garapena sustatzea eta sektorerara inbertsioa erakartzea. 3. Proiektu eragile kolaboratzaileak sortzea. 4. Inbertsio teknologikoak indartzea, sektorea bultzatzeko gaitasuna duten enprekin lankidetzan.
<p>LEHIAKORTASUNERAKO TESTUINGURUA.</p>	<ol style="list-style-type: none"> 1. “Gastronomy Open Ecosystem (GOe)” ekimena sustatzea, balio-kate osoan talentua, ezagutza, berrikuntza eta ekintzailtza sustatuko dituen ekosistema bat sortzeko, gastronomiaren bidez. 2. Erakundee arteko lankidetzak publiko-pribatua. 3. Aliantza, kluster eta enpresa-elkarteei laguntzea masa kritikoa irabazten. 4. ZTBESko sektore-eragileei laguntzea enpresa-transferentzia eta -lankidetzan. 5. Ekimenak sustatzea landa- eta itsasertz-eremuetako gune ahulenetan.
<p>BIOEKONOMIA ETA ZURAREN BALIO-KATEA.</p>	<ol style="list-style-type: none"> 1. 2021-2024 Bioekonomiaren Plan Estrategikoa ezartzea. 2. Zuraren balio-katea sustatzea, ekoizpenerako, eraldaketarako eta kontserbaziorako hobekuntzak sustatuz eta bioekonomiarako baliabide gisa dituen aukerak indartuz (energia, eraikuntza, <i>packaging</i>...). 3. Ekintzailtza, barneko ekintzailtza eta enpresa-jarduera berrien sorrera sustatzea bioekonomia zirkularraren arloan, nekazaritza-, basogintza- eta arrantza-sektorean eta elikadura-erlaketarekin eta elikagaien xahuketaren kudeaketarekin lotutako jardueretan ipiniz arreta.

5.1. NEKAZARITZA-, ARRANTZA- ETA BASOGINTZA-SEKTOREAREN ROLA INDARTZEA.
 Belaunaldi-erreleboa sustatzea lehen sektorean.

Jaurilaritzak legegintzaldi honetarako finkatu dituen helburuen artean nabarmentzen da elikaduraren eta zuraren balio-katearen hazkuntza sustatzea, klima-aldaketa integratuz eta lehen sektorearen etorkizuna bermatuz. Helburu hori lortzeko, gure lehen sektorea gaztetu behar da, baita ekoizpen-sektoreak balio-kate osoan duen rola indartu ere. Atal honetan hainbat neurri eta jarduketa-ildo jasotzen dira, eta haien helburua da talentua bermearekin sartzeko, sektore barruko eta sektore arteko egituraketan aurrera egitea eta gure lehen sektorearen posizio lehiakorra hobetzea.

1. **Lehen sektorearen gaztetzea sustatzea, beste administrazio eta eragile batzuekin lankidetzan.**
 - Gazteak sartzeari lotutako programak (Gaztenek, Geroa, Itsasoratu) erkidegoko programazio-aldi berriaren eskakizunetara egokitzea, inplikaturako gainerako eragileekin koordinatuta.
 - Lehen sektoreko ekintzaile berrietara egokitutako finantza-tresnak sustatzea.



- Belaunaldi-erleboaren alde egitea nekazaritza-, abeltzaintza-, basogintza- eta arrantza-ustiattegietan, bioekonomiarekin lotutako negozio-eredu berrieekin.

LAGUNTZA-NEURRIAK / PROGRAMAK:

- Gaztenek Berria programa (berrikuntzako eta ekintzailtzako prestakuntza gehituz -Gaztelein)
- Geroa programa.
- Itsasoratu programa.
- NBBFaren zuzeneko laguntzak.
- Lehen sektoreko ekintzaile berrietara egokitutako finantza-tresnak (mikrokredituak, gerora itzuli beharreko aurrerakinak, etab.) sustatzea.

2. Sektore barruko eta sektore arteko berregituraketan aurrera egitea.

- Sektorearen berregituraketan aurrera egiten jarraitzea, ekoizleen elkarteak sortuz edo azpisektoretako elkarteak batuz. Ekoizpen-taldeen eta eraldaketa-enpresen edo -taldeen arteko egiturak indartzen edo sortzen laguntzea, eta merkaturatze-egiturak garatzen laguntzea.
- Kooperatibismoa indartzea eta kooperatiben elkarteak sustatzea (fusioa).
- EAEko nekazaritza- eta basogintza-ekoizleen taldeen eta euren elkarte edo federazioen araudia aldatzea, beste elikadura-produktu batzuk gehituz, besteak beste mahastizaintza-produktuak edo eraldatutako beste produktu batzuk.
- Azpiegitura eta zerbitzu espezializatuak garatzea (digitalizazioa, eskaintzen kontzentrazioa, lonjak, etab.).
- Sektoreko elkarten eta aholkularitza-zentroen fusioa indartzea.
- Lehen sektorearen beharrak modu integralean jorratzea, besteak beste nekazaritza-sektorerako langileak emango dituzten enpresa edo egiturak sustatuz.

LAGUNTZA-NEURRIAK / PROGRAMAK:

- Nekazaritza- eta basogintza-ekoizleen taldeentzako laguntzen deialdiak.
- Fruitu eta barazkien ekoizleen erakundeentzako laguntzak.
- FEMP sektorearen egituraketa.
- Elkarteak programa (programa berriro orientatzea)

3. Lehen sektorea indartzea elikadura eta zuraren balio-katean.

- Elikakatearen Behatokia sortzea katearen funtzionamendua eta prezioak jarraitu eta aztertzeke.
- Kontratuen formalizazioa sustatzea elikakate osoan, eta epe luzeko kontratuak ezartzea sustatzea, egonkortasuna emateko xedearekin.
- Ekoizpenaren eraldaketa sustatzea nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiattegietan. Geroa programa indartzea.
- Nekazaritza-lurren bankuak indartzea.
- Berrikuntza eta ekintzailtza sustatzea nekazaritza-sektorean.
- Aldagai lehiakorak indartzea eta azpisektoreen merkatuak aukeratzea.



LAGUNTZA-NEURRIAK / PROGRAMAK:

- Gaztenek programa.
- Geroa programa.
- Lehen sektorearen digitalizazioari laguntzeko programa.
- Ekoizpen-azpisektore berriak sustatzeko programa.
- Lehen sektorearen berrikuntzari laguntzeko programa.
- ONekin programa (bonuak)

4. Nekazaritza- eta basogintza-sektorearen ingurumen-jasangarritasunaren alde egitea.

- Ekoizpen ekologikoa sustatzea Euskadin.
- Proiektuak garatzea nekazaritza ekologikoaren arloan, sektorearen profesionalizazio eta lehiakortasun handiagoak lortzeko.
- “Baserritik mahaira” estrategia komunitarioa ezartzea laguntza-programen eta neurri egokien bidez, EBren ingurumen-helburuak bete ahal izateko beste administrazio eskudun batzuekin koordinatuta.
- Labore berriak sartzea babestea, eta, zehazki, labore proteinadunak, eta bazka-ekoizpena sustatzea abeltzaintza-ustiategietan, kanpoko mendekotasuna murrizteaz gain nekazaritzako *commodities* direlakoen mundu-mailako prezio-aldaketan eragin txikiagoa izateko.
- Produktu fitosanitario alternatiboen garapena sustatzea.
- Tratamendu fitosanitarioen murrizketa ahalbidetzeko teknologia berriak sustatzea (digitalizazioa, mutagenesia, etab.).
- Minden eta beste abeltzaintza-hondakin batzuen kudeaketan aurrera egitea, eta mindak tratatzeko eta ongari organikoak sortzeko proiektuak sustatzea.
- Labore proteinadunak eta bazka-ekoizpena sustatzea gure ustiategietan.

LAGUNTZA-NEURRIAK / PROGRAMAK:

- Nekazaritzako ingurumen-arloko laguntzak labore estentsiboak dibertsifikatzeko.
- II. GEPEan proposatutako laguntza-programa eta -neurri berriak.
- Ekoizpen ekologikorako trantsiziorako programa.
- Animalien ongizatearen Welfair ziurtagiria lortzeko programa.
- Elikadura-industriako “IFS” ziurtagiria lortzeko programa.
- “Global Gap” ziurtagiria lortzeko programa.

5. Gizartea sensibilizatzea lehen sektorearen rol estrategikoari buruz, gizartean, ekonomian, ingurumenean, kultura-ondarea, lurraldearen orekan, eta abarrean egiten duen ekarpenari esker.

- Hainbat eragilek partekatutako komunikazio-plan integral bat garatzea, sensibilizazio eta kultura gastronomikoaren programak sustatu eta garatzea, elikadura-segurtasuna, identitate-kontuak indartzea, etab.
- Landa- eta itsasertz-munduak eta natura-inguruneak hiri-munduan egiten dituzten balio-ekarpenak hedatzea, eta tokiko produktuen entzutea eta kontsumoaren alde egitea, NIREA ekimenaren esparruan.
- Elikadura-ekoizpen eta -kontsumo ekologikoari buruzko informazio- eta dibulgazio-kanpainak sustatzea.



LAGUNTZA-NEURRIAK / PROGRAMAK:

- Komunikazio-plana.

6. Emakumearen irudia indartzea sektorean. Emakume Nekazarien Estatutuaren esparruan aurrera egitea.

- Sentsibilizazio-kanpainak.
- Emakumeen titulartasuna lehenestea laguntzak eta dirulaguntzak arautzen dituzten arauetan.
- Emakumeen ekintzailtza sustatzea programa eta ekintza espezifikoaren bidez.
- Emakumeak enpresen eta landa- eta itsasertz-ingurunearen erabaki- eta partaidetza-organoetan modu eraginkorrean sar daitezten sustatzea, eta parte-hartze horren garrantziari buruzko sentsibilizazio-kanpainak egitea.
- Emakumeek landa- eta itsasertz-ingurunean duten egoerari buruzko ezagutza hobetu eta eguneratzea.

LAGUNTZA-NEURRIAK / PROGRAMAK:

- Komunikazio-plana.
- Emakumeen ekintzailtza-programa landa- eta itsasertz-ingurunean.
- Laguntza-deialdiak.

5.2. ENPRESEI LAGUNTZEA NEGOZIOAK SORTZEN.

Ardatz honetan hainbat laguntza-programa, finantza-tresna eta jarduketa-ildo jasotzen dira, eta haien helburua da jarduera ekonomikoa eta ekoizpen-aktibo eta aktibo teknologiko berrietako inbertsioak sustatzea, baita negozio-idea berriak garatzeko laguntza emate ere, hazteko gaitasunarekin, enpresako barneko ekintzailtzari eta ekintzaile gazteei lagunduz.

1. Behar eta etapa bakoitzera egokitutako programa, zerbitzu eta laguntza-ildoak eskaintzea.

- Zailtasunak dituzten enpresei bana-banako laguntza eskaintzea.
- Ekoizpen-inbertsioa sustatzea LEHIATU programaren bidez, enpresa-lehiakortasunaren alde egiteko teknologia berri efizienteagoak gehituz, elikadura-produktuen eraldaketa eta merkaturatzea hobetzeko.
- Onekin programa sustatzea, ekintzailtza-ekimenen arreta integral eta pertsonalizatuaren, digitalizazioaren eta berrikuntzaren zerbitzua.
- Enpresei laguntzeko diziplina anitzeko talde bat sortzea: eskuragarri dauden tresnen mapari buruzko aholkularitza-binuak sortzea.



LAGUNTZA-NEURRIAK / PROGRAMAK:

- Lehiatu Berria.
- MAE inbertsioa mahastizaintza- eta barazkigintza-sektorean.
- Mahastizaintza- eta ardogintza-sektoreko inbertsiorako laguntzak minimis araudiarekin bat.
- FEMP esparruko laguntzak eraldaketa eta merkaturatzerako.
- Berriker Berria.
- ONekin programa (bonuak)

2. Enpresei laguntzeko finantzaketa-tresnak sustatzea.

- Egungo finantza-tresnak indartzea eta negozio-behar eta -tipologia desberdinetara egokitutako finantza-tresna berriak sustatzea, besteak beste finantza-tresna zirkulatzaila bat sortzea, finantza-tresna bat sustatzea LGENFaren arloan, Sendotu eta Hazilur indartzea, etab.
- Euskadiko inbertsio-funts probatuak sortzea sustatzea, eta finantzaketa-errondetarako “inbertsioen poltsa” sortzea, sektorean jarduera ekonomiko berria eta negozioak garatzeko.
- Hazteko potentziala duten oinarri teknologikoko enpresa berriei laguntzea, HAZILUR programaren bidez (mailegu parte-hartzaileak eta kapitaleko parte-hartzeak), inbertsio-funts pribatuekin lankidetzan.
- Onekin Finantzarioa programa sortzea, finantza-egoera zailean dauden enpresentzat, kanpoko aholkularitza-zerbitzuak kontratatuzko, enpresen finantza-egoeraren diagnostikoa egiteko eta enpresaren bideragarritasuna hobetzeko ekintza-plan bat prestatzeko.

LAGUNTZA-NEURRIAK / PROGRAMAK:

- Sendotu programa.
- NEKAFIN. Berme-formako finantza-laguntzak ardoa, sagardoa eta garagardo artisaua prestatzen duen sektorearentzat.
- ETEak eta autonomoak finantzatzeko programak, enpresei likidezia emateko.
- Sendotu programa: zirkulatzaila-erentzako ildo bat ahalbidetzea.
- ONekin Finantzarioa programa.

3. Euskadi kokatzea ekintzaitzarako eta barne-ekintzaitza sustatzeko lurralde erakargarri gisa.

- EIT Food programa eta Seedbed Incubator finkatzea.
- EIT Food Accelerator Network (FAN) finkatzea.
- BIND 4.0 Food Tech programa finkatzea.
- Culinary Action! azelerazio-programa indartzea.
- OMT (Global Gastronomy Tourism Startup Competition) deialdia mantentzea.
- Bikaintasun gastronomiko proiektuak finkatu eta hazteko plan bat garatzea.
- ONekin! laguntza-programa indartzea.
- Ekintzaileei zuzendutako finantzaketa-aukerak indartzea (Sendotu, Hazilur, funts pribatuak, IF zirkulatzaila, etab.).
- Ekintzaitza eta barneko ekintzaitza sustatzea, bereziki digitalizazioarekin eta trantsizio ekologikoarekin lotutako enplegu-gune berriak.



- Euskadin azeleragailu eta inkubagailuetan parte hartzen duten enpresen instalazio eraginkorra lortzea.
- Food Invest In programa sustatzea ONekin programaren barruan.
- Arreta eta esku-hartzeko zerbitzu pertsonalizatuen garapena indartzea.
- Enpresako ezarpen-gidak prestatzea, enpresa bat sortzeko beharrezko eduki eta kontuak jasoko dituztenak.
- *Startup* pak sustatu eta ikusarazteko ekintzak.
- Erakunde arteko lankidetzak indartzea enpresa-proiektuak abian jartzeko, beharrezko administrazio-izapideekin, kokalekuen bilaketarekin, araudien eskakizunekin, laguntza teknologikoarekin, finantza-, lege- eta zerga-laguntzarekin, eta abarrekin lotuta.
- "Basque Food Innovation Hub" delakoa sustatzea, elikaduraren eta zuraren balio-katearen zerbitzura jartzeko berrikuntza eta digitalizazioko erronkei aurre egiteko zerbitzu eta aktiboak, ekintzailtzarekin lotuta, Basque Digital Innovation Hub-ekin koordinatuta.

LAGUNTZA-NEURRIAK / PROGRAMAK:

- ONekin! programa, Food Invest In programa sustatuz.
- EIT Food programa.
- Culinary Action! programa.
- Gastrobikain programa.
- Nekazaritza-sektorerara eta nekazaritzako elikadurako enpresetara hurbiltzeko bekak.
- BIND 4.0 Food Tech programa (SPRI).
- Ekintzaileei zuzendutako hainbat finantzaketa-programa (Sendotu, Hazilur, funts pribatuak, IF zirkulatzaila, etab.).
- Aurrera programa (SPRI).
- Basque Fondo programa (SPRI).
- Gauzatu Industria programa (SPRI).
- Ekintzaile Industria programa (SPRI).
- ONekin Saiatu programa (ekintzailtzarako laguntza).
- Sendotu, Lehiatu eta Hazilur:
 - Prestigio-azeleragailuetatik datozen *startup* eta enpresei zuzendutako ildoak gaitzea.
 - Zirkulatzaila-ildo bat gaitzea.
- Prestigio-azeleragailuetatik datozen *startup* eta enpresei zuzendutako gerora itzuli beharreko aurrerakinen programa bat artikulatzea.
- Pertsona edo enpresa ekintzaileentzako laguntzak, proiektuak garatu eta abian jartzeko.

5.3. TOKIKO ETA ESTATUKO MERKATUAK NAZIOARTEKOTU ETA GARATzea.

Eusko Jaurlaritzak historikoki Euskadiko elikadura-enpresak babestu ditu nazioartekotzeko eta merkatu berrietara sartzeko estrategian. Plan honekin horiek indartzen jarraitu nahi dute, eta jauzi kualitatibo bat eman nahi da kantitatean eta kalitatean, erronka berriei eta geroz eta indartsuagoa eta handiagoa den nazioarteko lehiari aurre egiteko. Egungoa bezalako testuinguru batean, beharrezkoa da laguntza-esparru pertsonalizatu bat ardaztu eta garatzea, laguntza-ekintzak segmentatuz eta nazioarteko azoketako parte-hartzea bezalako tresna tradizionalak alderantzizko misioekin eta nazioarteko bezeroekiko harremanetarako modu



berriekin batuz, ez soilik merkatu berriak irabazteko, baizik eta Euskadira gastronomiaren sektoreko bezero berriak erakartzeko.

Gastronomia eta elikadura entzutea, kalitatea eta berrikuntza ematen diote Basque Country markari, eta, horietan oinarrituta, nazioarteko sustapen-plan bat eraikitzen jarraitu nahi da, baita hazteko potentzial garrantzitsua duten merkatuak garatzen ere, hala nola estatukoa eta tokikoa.

1. Elikadura-gastronomia-turismoa triangeluaren nazioartekotzea sustatzea.

- Basque Culinary World Prize sustatzea.
- Erreferentziako preskriptoreei laguntzea Euskadiko gastronomia eta elikadura sustatzen, turismo gastronomikoaren aukera-esparru gisa.
- Enpresei nazioarteko prestigio-sarrietan aurkezten laguntzeko programa.
- Enbaxada gastronomikoen proiektua (establezimendu gastronomikoak eta merkataritza-dendak) Basque Country markarekin.
- Gastronomia eta elikadura sartzeari Euskadiren nazioarteko sustapen-ekintzetan, Basquetour-ekin.
- REGAL sustatzea:
 1. eskualde eta sektoreko eragile berriak gehitzea.
 2. Ekintzak zehaztea hainbat arlotan (berrikuntza, digitalizazioa, etab.).

LAGUNTZA-NEURRIAK / PROGRAMAK:

- Basque Culinary World Prize programa.
- Caprice proiektua.

2. Enpresen nazioartekotzea sustatzea.

- Nazioartekotze-planak sustatzea.
- Nazioartekotzera eta merkatu berrien irekierara bideratutako laguntza indartzea (misio zuzenak, alderantzizkoak, etab.).
- Enpresa eta partzuergo esportatzaileen arteko lankidetzak sustatzea, efizienteagoak izateko eta eragin sinergikoak lortzeko nazioarteko merkatuen garapenean. Esportazio-partzuergoen sorrera sustatzea.
- “Ardoa Basque Wine Office” sustatzea.
- Enpresen zerbitzurako adimen lehiakorraren gaitasunak garatzea: produktu eta zerbitzuekin lotutako eskaintza garatzea, ezagutzaren sektorerako transferentzia sustatzeko.
- Sektorea Global Lehian programan sartzeari.
- Nazioartekotze-jarduerak finantzatzeko finantzaketa pertsonalizatua bilatzeko ekintza espezifikoak artikulatzea.
- Programak edo antzekoak aktibatzea talentua gehitzeko marketinean eta nazioarteko merkataritzan esperientzia duten enpresetan.
- Alderantzizko misioen programa indartzea.
- Euskadiko elikadura-arloko enpresak nazioartekotzeko ekintza-plan bat sustatzea, besteak beste honako hauek aurreikusiko dituenak: kanpoko sare bat ezartzea, aldebiko akordioak finkatzea, misio zuzenak eta alderantzizkoak, atzerriko merkatuetan espezializatutako profesionalen kopurua indartzea, nazioartekotzeari finantza-babesa ematea, digitalizazioa, esportazio-partzuergoak aktibatzea, etab. Plan horretan hainbat eragilek hartu beharko lukete parte: Sailburuordetza, Klusterra, merkataritza-ganberak, Hazi, etab.
- Nazioarteko eragileekiko topaketak bilatzeko “espazio” bat sortzea.



LAGUNTZA-NEURRIAK / PROGRAMAK:

- Lehiatu sustapena.
- OCM sustapena.
- Prestatu programa.
- Lehiatu Ardoa sustapena.
- Elikadura-industria sustatzeko plana. Azoketan parte hartzea (urteko deialdiak).
- Europako programetan parte hartzea (Caprice eta antzekoak).
- Zabaldu programa (SPRI).
- Sakondu programa (SPRI).
- Enpresak nazioartekotzeko finantza-tresna bat sortzea.
- Marketinean eta nazioarteko merkataritzan esperientzia duten enpresetara talentua erakartzeko laguntza-programa bat sortzea.

3. Tokiko eta kalitateko produktu jasagarriak sustatzea.

- Hainbat ekimen eta jarduketa sustatzea jatorri- eta kalitate-marken esparruan, Eusko Label, etab.
- Tokiko produktuaren hornikuntza-gaitasunari buruzko taula eguneratzea, Kontratazio Publikoaren Mahaian aurkezteko.
- Tokiko produktua sustatzeko azoka eta ekitaldiak babestea (Eusko Label liga, Fan Zone, Zinemaldia, Biokultura...).
- Tokiko gastronomiaren eta ekoizleen arteko lankidetzaren babesa mantentzea.
- Tokiko produktuek jasangarritasunari begira dituzten abantailei buruzko azterlan sozioekonomikoak sustatzen jarraitzea.
- Ardoa-Basque Wine Office sustatzeko plana.
- Gertuko salmentaren Dekretua argitaratzea.
- Eskola-jantokietan eta antzekoetan tokiko produktuak sartu eta kontratatzeke klausula berriak ebaluatu eta zehaztea.
- Kalitateko produktuen kanak anitzeko estrategia bat garatzen laguntzea.
- Produktua garatzea ziurtagiri bikoitzarekin: kalitate desberdindua eta ekologikoa.
- Gizarteari azaltzea tokiko produktua ingurumenari begira duten eragin positiboa, prestakuntzaren eta informazioaren bidez, adibidez, “ingurumen-aztarna” gisako kontzeptuen bidez, pertsonak uler dezaten euren ekintzen eragina eta horren harira jokabidea alda dezaten.
- Formula berritzaileak ezartzea, elikagaien ekoizpenaren kostua (ekonomia, gizarte eta ingurumenarena) ezagutzeko eskaerari erantzuteko, eta hori gizarteari azaltzea sentsibilizazio-programen bidez.



LAGUNTZA-NEURRIAK / PROGRAMAK:

- Nirea! programa.
- Lehiatu sustapena.
- Elikadura-industria sustatzeko plana. Azoketan parte hartzea (urteko deialdiak).
- OCM sustapena.
- Lehiatu Ardoa sustapena.
- Mugagabe Ardoa.
- Basque Wine sustatzea (barne-merkatua sustatzea).
- Kalitate-erregimenei laguntzea (informazioa eta barne-merkatuko sustapena).
- Kalitate-erregimenei laguntzea (lehen aldiz parte hartzea kalitate-erregimenean).
- Barne-merkatuko sustapenari laguntzea (Basque Wine sustapen-programa).
- Basque Label Okindegiak (markaren garapenean parte hartzen duten establezimendu tradizionalen laguntzea).
- Basque Label Arraindegiak (markaren garapenean parte hartzen duten establezimendu tradizionalen laguntzea).
- Euskolabellen ingurumen-aztarna ezartzeko programa.

4. Euskadiko gastronomia- eta elikadura-sistema sustatzea, Basque Country markan oinarrituta.

- Nazioarteko preskriptoreak Euskadira erakarri eta fidelizatzea (kazetari eta kritikari gastronomikoak, *bloggerak*...), mundu-mailako sustatzaileak izan daitezten.
- Basque Culinary World Prize mantendu eta sustatzea.
- Eusko Jaurlaritzaren Kanpo harrememanekin Basque Country markaren sustapen- eta komunikazio-plan bat koordinatzea, gastronomian eta elikaduran oinarrituta.
- Euskadiko berrikuntza-eragileen nazioarteko presentzia ahalbidetzea foro garrantzitsuetan, Euskadiko gastronomia eta elikaduraren ezaugarriak dibulgatzeko.
- Euskadin nazioarteko kongresu zientifikoak eta nazioarteko entzuteko ekitaldi gastronomikoak antolatzea ("Food 4 Future").

LAGUNTZA-NEURRIAK / PROGRAMAK:

- Komunikazio-plana.

5. Kanal-aniztasuna.

- Arlo horretako digitalizazioa sustatzea, sektore efiziente, adimentsu eta segurua lortzeko. Enpresa txiki eta ertainetan bezeroarekiko eta kontsumitzailearekiko salmenta-, zerbitzu- eta komunikazio-prozesu guztiak digitalizatzea eta kanal-aniztasunaren garapenaren bilakaera ahalbidetuko duten proiektuak garatzea.
- Balio-kateko kate-mailak lotuko dituzten proiektu pilotuak garatzea ahalbidetzea, besteak beste HORECA sektorearen eta haren bezeroen artean edo banaketaren eta tokiko produktuen artean.
- Kanal-aniztasunari buruzko sentsibilizazioa.
- Zeharkako lankidetzaren proiektuak sustatzea, kalitate desberdinduko marken babestutako produktuak azpimarratuz.



- Honako hauetan oinarritutako berrikuntzak sustatzea:
 - soluzioak eta zerbitzuak, produktuen aurretik, bezeroen profil ezberdinak aintzat hartuta komenientzia gisa.
 - 24 orduko kultura, egungo produktu eta zerbitzuak egokituz eta bezeroen ordutegi ezberdinetarako soluzio berriak eskainiz.
- Elikagaien ezaugarriei buruzko komunikazioa hobetzea, baita enpresen produktu eta zerbitzuen segurtasuna eta higiena ere, elikakate seguru eta osoan konfiantza sortzeko.

LAGUNTZA-NEURRIAK / PROGRAMAK:

- Mugagabe Ardoa.
- Next Generation programa.
- Online salmentari buruzko programa.
- “On Egin” programa.
- Onekin programa (bonuak).
- Digitalizazio-programa.
- Lankidetzeta-neurria.
- Komunikazio-plana.

5.4. TEKNOLOGIA ETA EZAGUTZA BALIO ERANTSIKO NEGOZIOEN ZERBITZURA.

Krisi-urteetan zehar, enpresek hainbat neurri ezarri dituzte efizientzia hobetzeko eta kostuak murrizteko. Nahiz eta oraindik badagoen marjina norabide horretan aurrera egiten jarraitzeko, etorkizuneko erronka izango da balio erantsia sortzea, eta, horretarako, funtsezkoa da teknologiak eta ezagutzak garatu eta txertatzea Euskadiko gastronomia- eta elikadura-enpresetan. Adierazi den moduan, sektore honetan hazteko aukera handia dago, baina inguruko aldatetara egokitu behar da, azkar eta etengabe, lehiakide globalekin, lehengaietan geroz eta presioa handiagoarekin, banaketa-prezioaren gerrarekin eta markekiko geroz eta prestazioetan geroz eta zorrotzagoak diren eta markekiko geroz eta fideltasun txikiagoa duten kontsumitzaileekin. Agertoki horretan, gakoa arlo guztietan berritzea da. Produktuaren berrikuntza bat gehiago da, eta ez da ezinbestekoa merkataritza-arrakasta edukitzeko eta enpresa eta ustategien jasagarritasuna bermatzeko.

1. **Enpresa ireki eta konektatuak, soluzio hobek eskaintzeko eta kontsumitzaileen beharrei aurrea hartzeko.**

- SFC 4.0 Digitalizazio Estrategiaren Ekintza Planean aurreikusitako ekintzak garatzea.
- Elikadura-tendentziei buruzko azterlanak egitea retailen eta HORECA kanalean, ondoren merkatu-aldaketen etengabeko behatoki gisa erabiltzeko.
- Balio-katean proiektu frogagarriak sustatzea, zeharkakoak ekoizleen, eraldaketaren, banatzaileen eta HORECAren artean, ETE-etan arrakala digitalari aurre egiteko.
- Neuromarketinari eta jokabideei buruzko azterlanak sustatzea, segmentu bakoitzera egokitutako zerbitzuak garatzeko.
- Ekoizpen-sektorean IKTak sustatzearekin lotutako proiektuak bultzatzea.
- Digitalizazio Estrategiaren Ekintza Plana sustatzea.
- Digitalizazioaren sentsibilizazioa eta gaikuntza.
- Digitalizazioko aholkularitza-bonuak sortzea.
- Enpresen hobekuntza lehiakorra sustatzea, euren digitalizazioa sustatuz, eta SFC gobernantza-eredua garatzea, prestakuntza-beharrak jorratzeko, digitalizazioaren ezarpena sustatzeko, eta abarrerako Europako funtsak aintzat hartuta.
- Lehen sektorean eta elikadura-industrian sentsibilizazio- eta gaikuntza-programak sustatzea, arrakala digitalari aurre egiteko.



- Elikadura eta zuraren balio-katean gaikuntza-, prestakuntza- eta birziklapen-neurriak indartzea, aro digital berrira orientatuta.
- Enpresen negozio-kate osoan datuak sortu eta kudeatzeko tresnen garapena indartzea, erabakiak errazago hartzeko eta funtsezko eragileak konektatzeko, ekoizletik amaierako bezerora.
- SFC 4.0 ekosistema sortu eta dinamizatzea: eragile publiko eta pribatuen arteko lankidetzeta, soluzio digitalen katalogoa, "SFC" marka aktibatzea, etab.
- 4.0 iraultza teknologiko berrira egokitutako makineriaren Renove Plana sustatzea.

LAGUNTZA-NEURRIAK / PROGRAMAK:

- Alfabetizazio digitalaren programa nekazaritza-ustiategietan.
- Arrantza- eta elikadura-produktuak eraldatu eta merkaturatzeko industriako enpresei zuzendutako elikadurako digitalizazio-programa.
- ONekin Digitala! programa.

2. Ekoizpen-sistema berri eta jasangarri, automatizatu, efiziente eta seguruagoak, lehiakortasuna irabazteko.

- I+G babestea ekoizpen-sistema seguruagoak garatzeko, antibiotikorik, pestizidarik eta pertsonen osasunean eragiten duten beste kutsatzaile kimiko edo biologikorik gabe.
- ETE-ei laguntzea euren I+G inbertsio-programetan.
- Teknologia, ekipamendu berriak, prozesuak eta elikagaiak kontserbatzeko sistemak txertatzea, batez besteko merkataritza-bitzeta luzatzeko. Presio handiko fabrika sustatzea.
- Ekoizpen- eta merkaturatze-prozesuen efizientzia hobetzea, kostuak murrizteko, trazabilitatea egiteko eta kontsumitzaileei informazioa emateko aukera emango duten teknologia berriak txertatuta. Elikagaien jasangarritasuna ebaluatzeko eta komunikatzeko sistema homogeneo berriak ezartzea balio-katean.
- Elikagaien xahuketa murriztea sentsibilizazio-kanpainen, HORECA kanalerako aurrezpen- eta ekoefizientzia-kanalen eta elikakateko soluzio eta jardunbide egokien prestakuntzaren bidez.
- Elikagaien xahuketa: diagnostikoa (amaiera), ekintza-plana garatzea eta sentsibilizazio-kanpaina.
- Enviromental Product sistema aplikatu eta ezartzeko aukera aztertzea kalitate-bereizgarriak dituzten produktuetan, produktu prestatu eta eraldatuetan eta kolektibitateetan.
- Merkaturatze-kanalak hornitzen dituzten enpresen eta HORECAren arteko lankidetzeta sustatzea.
- Proiektuak garatzea ekoizpen-sektoreko labore eta teknologien egokitzapenaren arloan, klima-aldaketaren ondorioak mugatzeko nekazaritzan eta horren eragina arintzeko nekazaritza-praktikak sustatzeko.
- ELIKAREkin batera Elikagaien Segurtasunaren Arloko Ikerketa Koordinatzeko Plana hedatzea. Plan hori arlo horretako I+G+b proiektuak babesteko diseinatu da.
- Berrikuntza gehitzea Lehiatu programan baloratu beharreko irizpide gisa.
- Elikagaien Segurtasunaren Arloko Ikerketa Koordinatzeko Plan berria prestatu eta garatzea.
- Ingurumen-aztarna ebaluatzeko tresna zabaltzea, pertsonen ekintzek duten eraginari buruzko prestakuntza eta informazioa ematea eta pertsonen portaeran eragitea.
- Enpresetan honako hauek azpimarratuko duten jarduketak sustatzea: lehengaien erabileraren efizientzia, biohondakinen errealizazioa, ontziak, hondakinen murrizketa, lehengaiak hornitzeko zirkuitu laburren garapena, merkaturatzea eta logistika.
- Eskalako teknologia pilotu berriak garatzea, argi-pultsutan, mw bidezko



lehortze-teknologietan, eta abarretan oinarrituta.

LAGUNTZA-NEURRIAK / PROGRAMAK:

- Lankidetzarako laguntzak.
- Lehiatu Berria.
- OCM mahastizaintza- eta ardogintza-sektoreko inbertsioa.
- Mahastizaintza- eta ardogintza-sektoreko inbertsiorako laguntzak minimis araudiarekin bat.
- I+G+b laguntza.
- Prozesu-berrikuntzetarako laguntzak.
- Sendotu programa.
- FEMP esparruko laguntzak ikerketarako, garapenerako eta transferentzia teknologikorako.
- FEMP ingurumen-laguntza.
